



**kantulagun**

- 01- **EUSKALDUN BAT VERACRUZEN** (Eusebio M. Azkue. Musika: Oskorri)
- 02- **TXANTON PIPIRRI** (Antonio Aboitiz. 1751-1824. Lekeitioko abade bat. Musika: Oskorri)
- 03- **MARKANOKIN AMERIKETARA** (Eibarko Markano eta lagunak. Musika: Oskorri)
- 04- **ANTONI ETA ANTON** (Hitzak eta musika: Nemesio Etxaniz)
- 05- **NAFARROA** (Hitzak: X. Amuriza. Musika: Oskorri)
- 06- **IBAIZABALEN EZKER-ESKUMA** (Hitzak eta doinua: X. Amuriza)
- 07- **EPERRAK BADITÜZÜ** (Hitz eta doinu anonimoak)
- 08- **URIBARRIKO LIRIO EDER** (Anonimoa. 1700 ingurukoa)
- 09- **AGUR SAGAR BELTZARAN** (Hitzak eta doinua: X. Amuriza)
- 10- **ASTEBURU ALDERA** (Doinua: Anje Duhalde. Hitzak: X. Amuriza)
- 11- **MATXALEN KARDU** (Doinua herrikoia. Bertsoak: Kepa Enbeita, “Urretxindorra. 1878-1942)
- 12- **ARRAIN SALTZAILIA** (Bertsoak: De La Fuente anaiak, “Durangoko plateruak”. Musika: Oskorri)
- 13- **MATXANGO** (Lekeition, tximinoa)  
(Antonio Aboitiz. 1751-1824. Lekeitioko abade bat. Musika: Oskorri)
- 14- **KAUSINO** (Bertsoak: De La Fuente anaiak, “Durangoko plateruak”. Musika: Oskorri)
- 15- **MENDI ALTUAN** (Musika: Ruper Ordorika. Bertsoak herrikoiak)
- 16- **ITSASOTIKAN GATOZENIAN** (Hitzak eta doinua, herrikoiak)
- 17- **EGIJE DA. BERMIOKO PORTUAN** (Hitzak eta doinua, herrikoiak)
- 18- **GREZIAKO ITSASONTZIA** (Hitzak eta Musika: Lluís Llach. Euskaratzailea: Xabier Lete)
- 19- **SALAMANKARA, Nafarroako bertsoa** (Bertso anonimoak eta doinu herrikoia)
- 20- **ZAZPIAK OIHAL BATETIK** (Hitzak: Xalbardin. Musika: Fernando Unsain/Eltzegor)
- 21- **IDUZKI DENIAN** (Hitzak anonimoak. Doinua herrikoia)
- 22- **BIZI NIZ MUNDIAN**
- 23.- **MAITE ZAITUT** (Hitzak eta doinua: Pirritx eta Porrotx)
- 24- **ZURE BEGIEK** (Musika: Mikel Laboa. Hitzak: Daniel Landart)
- 25- **AZKEN DANTZA HAU** (Musika eta hitzak: Manex Pagola)
- 26- **ARBOLA GAINEAN** (Hitzak: Beñat Sarasola. Musika: Pier Paul Berzaitz)
- 27- **PRIMA EJERRA** (Hitzak eta doinua, herrikoiak)
- 28- **GOIZIAN ARGI HASTIAN** (Musika eta hitzak: Etxahun Iruri)
- 29- **BARATZE BAT** (Musika eta hitzak: Pier Paul Berzaitz)
- 30- **MARTXA BATEN LEHEN NOTAK** (Musika: M. Laboa. Hitzak: Bertolt Brecht)
- 31- **AITORREN HIZKUNTZA ZAHARRA** (Hitzak anonimoak. Doinua herrikoia)
- 32- **ALFERRAREN ASTEA** (Hitzak eta musika: Imanol Urbietta /Xirula-Mirula)
- 33- **BIZKAIA MAITE** (Musika: B. Lertxundi. Hitzak: Aingeru Irigarai)
- 34- **KONTRAPAS** (Hitzak: Beñat Etxepare. Musika: Xabier Lete)
- 35- **KAIA BARRENIAN. IXIL-IXILIK** (Doinua eta hitzak, anonimoak)
- 36- **PASAIKO HERRITIK** (Doinu herrikoia. Bertsoak: Xenpelar)
- 37- **PELLO JOXEPE** (Doinu eta bertso anonimoak)
- 38- **SAN SIMON** (Hitzak herrikoiak. Doinua: Xabier Lete)
- 39- **LEKEITIOKO KALIAN** (Doinua eta hitzak, herrikoiak)
- 40- **ZENBAIT BERTSO XELEBRE** (Hitzak Bernardo Atxaga. Doinua: Ruper Ordorika)
- 41- **OIHANIAN** (Hitzak eta doinua: Etxahun Iruri)

**\*CDko ordena eta numerazio bera daukate**

## 01- EUSKALDUN BAT VERACRUZEN (Eusebio M. Azkue. Musika: Oskorri)

1)

Hemen nago ni tristia  
ama alargunen semia  
kartzela baten  
penak esaten  
daukadazanak ugari  
neure pentsamentuari.

4)

Hamar urte nituzala  
jakin zan errege hil zala.  
Ez nekian nik  
hasiko zanik  
hagaitik gerran jentia  
ta hain gitxi zer zan gerria.

7)

Neure aita gizajua  
gizon bihotz handikua  
Hernani ganen  
heridu eben  
eta etorri zan etxera  
zauria sendatutera.

8)

Puskatuta eukan besua  
galduta erdiko txokua.  
Imini barik  
inok bendarik  
non bihar zan, orduan huts  
gelditu nintzan umezurtz.

11)

Hamazazpi urte daukadaz  
ta nago osasun onagaz.  
Itxasuetan  
gaur gehienetan  
irabazten da gehiago  
ta aberastu lehenago.

13)

Fragata eder bat eguan  
Habanarako goguan.  
Enbarkau nintzan  
morroe gisan  
ta berrogei egunian  
Habanara heldu ginian.

15)

Urte bi igaro ta gero  
neu ondo ezagutu ezkeru  
jeneruagaz  
ta ugazabagaz  
juan nintzan Veracruzera  
beste etxe bat imintera.

19)

Gero bosgarren urtian  
ez neukan inor partian.  
Etxeko kaxan  
dirua bazan  
eta sarritan amari  
bialdu neutsan ugari.

21)

Bariaku gau batian  
heldu jatazan atian  
soldadu batzuk  
igonda zeintzuk  
lotu ninduen sokakin  
dihadarrez: "Muera el Cachupín".

22)Ordutik hona kartzelan

bizi naz ez dakit zelan.  
Sarri askotan  
daukat gogotan  
amaituko balitz bizia  
hain daukat estu ta larria.

24)Neure ama bihotzekua!

Non dozu orain Jaungoikua  
alkantzetako  
semiarentzako  
zeuk euki zenduan indarra  
hil jatzunian senarra?

**02- TXANTON PIPIRRI** (Antonio Aboitiz. 1751-1824. Lekeitioko abade bat. Musika: Oskorri)

1)

Txanton Pipirri hemen dago  
limosna on bat balego.  
Kantau bihar dot  
baldin ahal badot  
nik gaur daukadan gosia  
errukitzeko jentia.

2)

Zabalak dodaz gibela  
estiak eta sabela.  
Hartuko leuke  
baldin baleuke  
ganbela bete okela.  
Baina hau noiz izango ete da?

3)

Ez da errotarri hain gogorrik  
nire haginak lakorik  
bada bakotxak  
zorrotz nahi motzak  
ogi bat hurunduten dau  
hiru bigunak edo lau.

4)

Batuten dodaz kalia  
arraina ugari danian  
hogeitxitarro  
edo gehiago  
baina guztiak gabian  
sartzen ditut sabelian.

5)

Orduan pozarren nago  
gaberdi ingururaino.  
Handik goizera  
nire sabela  
beti dago gur gur gur  
bartko aparria agur.

6)

Egunsentian apala  
daukat tripako azala.  
Balego orduan  
nire albuan  
lagun onen bat nok opa  
perol handi bete zopa!

9)

Ni jaio nintzan orduan  
aztua etxian eguan.  
Zuzen begira  
nire arpegira  
eta esan eutsan amari:  
"Entzun egizuz berba bi".

10)

"Inun aurkitu ezin da  
ezpada Bilbon Giralda  
andra bakarra  
zeinen bularra  
asko dan esne bagarik  
ume honentzat bakarrik".

11)

Igarlia zan aztua  
baina amak eukan modua  
Emon titia  
eukan guztia  
ta gero esnia ugari  
auzoko behien erroti.

12)Batuten dodaz mendian

egurrak egunsentian  
eruateko  
amak jateko  
egun guztian ogia  
niri emonik erdia.

13)Ez da neuretzat guztia

batuten dodan ogia.  
Zaku bete otzur  
batuten dot hur  
eskian iluntzerako  
ama eta neuretzako.

### 03- MARKANOKIN AMERIKETARA (Eibarko Markano eta lagunak. Musika: Oskorri)

1)

Kanta berri batzuek / dituguz atara  
aitzen emoten gatoz / herri honetara.  
Arioplanuan juateko / asmuetan gara  
bihar urtetzen degu / Ameriketara.

2)

Hamairu lagun gera / guztiok argiak  
ez gaitu bildurtuko / hotzak ez euriak.  
Bizirikan etortzen / bagera erdiak  
kontauko dizueguz / guk hango berriak.

3)

Bihar urtetzen degu / guztiok aidian  
ikusiko gaituzu / agurka bidian.  
Ondo urtetzen besku / daukagun idian  
ez gera etorriko / beste urte bian.

4)

Nueva Yorkera guaz / lehenengo runbuan  
handik Brasileraino / berriz hurrenguan.  
Gero Polo Nortera / hirugarrenguan  
bazterra bilauko degu / badago munduan.

5)

Polo norten ei daude / hain paraje baltzak  
harako egin dituguz / aproposko galtzak.  
Eskuetan harturik / galtzairuzko lantzak  
galdu ez gaitezen han / hotzak edo hartzak.

6)

Aparatua eiten / urte bian lana  
hortan gastatu degu / geure diru dana.  
Biderako ere berriz / bihar degu jana  
horreatik eskatzen degu / errialtxo bana.

#### 04- ANTONI ETA ANTON (Hitzak eta musika: Nemesio Etxaniz)

Antoni! Antoni!  
Zure atean nago ni.  
Ai, Anton! Ai, Anton!  
Ate ondoan, hor konpon.

Hormatxoriak negu gorrian  
ez du atsegin elurra:  
zerua goibel, kabia hotza  
eta janari gabe lurra.  
Ai, maite, nire bihotzak duen  
zure hotzaren beldurra!  
Biontzat kabi bat berotzeko  
bilduko nuke egurra.

Antoni! Antoni!...

Enarak ez du behin egindako  
kabirik inoiz aldatzen:  
urtero beti kabi aretan  
umeak ditu bazkatzen.  
Baina zu, Anton, enara txarra  
zaitut niretzat bilatzen;  
jai bakoitzean nexka berria  
ikusten zaitut maitatzen.

Antoni! Antoni!...

Enarak ere bere kabia  
galduta badu ikusten,  
biderik gabe, haruntz eta honuntz  
kabitik du alde egiten.  
Egarri dagoen nire bihotza,  
zuk eman ezik edaten,  
berriro ere ibiliko da  
gogorik gabe nonbaiten.

Antoni! Antoni!...

Zure bihotza egarri dela  
esan didazu bertsotan;  
neronek ere ikasia dut  
arrazoi duzula hortan.  
Zu beti zabiltz edari bila,  
ikusi zaitut askotan,  
baina neurritz gain egarri hori  
itotzen duzu ardotan.

Antoni! Antoni!  
kalabaza zale ez naiz ni.  
Ai, Anton! Ai, Anton!  
Haize freskoari, gabon!

## 05- NAFARROA (Hitzak: X. Amuriza. Musika: Oskorri)

Bai hotza eta ubela  
heriotzaren dolu gela.  
Gurean dugu gaubela  
gaua bezain egun goibela.  
Ama kendu digute  
jaiotzen ari ginela  
gero diote gure  
etxea ere ez dela.  
Gurean dugu gaubela  
gaua bezain egun goibela.

Gure kondairaren zama  
haize arrotz batek darama.  
Ez etxe eta ez ama!  
Hustu dute gure izana.  
Ai zer tristea etxe  
ama kendu diotena!  
Etixerik gabe ere  
oi ama, zer itomena!  
Ez etxe eta ez ama!  
Hustu dute gure izana.

Nafarroa, Nafarroa!  
Gure etxeko abaroa  
Arranoa, arranoa!  
Amarik gabe nora hoa?  
Aralartik Irati  
haritza eta pagoa.  
Bera ere bi zati  
eta josirik ahoa.  
Arranoa, Nafarroa!  
Etixerik gabe nora hoa.

**06- IBAIZABALEN EZKER-ESKUMA** (Hitzak eta doinua: X. Amuriza)

Elorriotik Zornotzaraino  
Garaitik Mañarin gora  
Zaldibar eta Atxondon zehar  
Berriztik Abadiñora  
Izurtza eta Iurretaren  
bitartean Durango da  
herri hontara gatoz harturik  
bertso barrien aizkora  
estutu hortzak nahi ez dauenak  
ezpalik sartu ahora.

Anboto zorrotz, Mugarra eder,  
Untzilatxen aurrean Oiz  
hara Saibigain odolustua  
gerra baltz hartako kainoiz  
Euren erdian herri zahar bat  
sortua ez dakigu noiz  
dakiguna da bizi dala ta  
ez dabela hilko inoiz  
oilarrarekin egunsentia  
kantatzen dau goizean goiz

Ibaizabalen ezker-eskuman  
daukagu Durangaldea  
kondairan zehar Gerediaga  
deritxon merindadea  
bi aldetako atx eta mendiz  
inguru paregabea  
barriro izan gura leukena  
bere haizeen jabea  
haizeen eta lainoen goitik  
datorren libertadea



## 07- EPERRAK BADITÜZÜ (Hitz eta doinu anonimoak)

Eperrak baditüzü bere bi hegalak  
Bai eta бүрүн gainin kokarda eijer bat  
Zük ere balin bazünü gaztetarzün eijer bat  
Neskatilen gogatzeko bilo holli pollit bat.

Amorosak behar lüke izan lotsa gabe  
Gaiaz ebiltia ez üken herabe  
Egünaz ebiltia desohore leike  
Txoriak ere oro haier so dirade.

Ebili izan nüzü gaiaz eta beti  
Eia atzamanen nianez lili eijer hori.  
Azkenian atzaman düt oi! bena tristeki  
Lümarik eijerrena beitzai erori.

Mündian ez da nihur penarik gabe bizi  
Nik ere badit aski hoitan segürki.  
Nik desiratzen nizün ezküntzia zürekin  
Bena ene aitak eztü entzün nahi hori.

Zure aitak zer lüke eni erraiteko  
Ala enitzaio aski aren ofizioko  
Ala zü soberaxe zitzaio enetako  
Printzerik ez ahal da orai züenganako.

## 08- URIBARRIKO LIRIO EDER (Anonimoa. 1700 ingurukoa)

Zeu bihar dan legez alabetako  
nok izango dau gaur mina?  
Uribarriko lirio eder  
Asunzinoeko Birjina.

1) Manso Lopezen debozinoak / ezin aurkitu eikean  
prenda hobarik Durangorentzat / bere ondasunen artean.  
Bere izena ahaztu ze zidin / eregi eban Imajina  
Uribarriko lirio eder / Asunzinoeko Birjina.

2) Kunplidu ez eban bere gustua / bera bizi zan artean  
baina agindu eban egin zidila / azkango borondatean.  
Elexa eder bat han ifinteko / zeruetako erregina  
Uribarriko lirio eder / Asunzinoeko Birjina.

3) Andra Maria Arandoñoko / zein zan bere lehengusina  
erakutsi zan enkargu honetan / ondo debotea eta fina.  
Bere lurrean ifinten ebala / Serafinen Serafina  
Uribarriko lirio eder / Asunzinoeko Birjina.

4) Zeruko ondasun parebagean / izan zedintzat komuna  
huri noble hau nahi izan eban / egin Jaubea ta Jauna.  
Zeuk bakarrikan pagadu zeinke / zeure honelako ongina  
Uribarriko lirio eder / Asunzinoeko Birjina.

5) Joia eder hau beretu ezkeru / Durangoko herri nobliak  
bera adoretan ifinten ditu / bere kuidadu guztiak.  
Ezin hobeto enpleadu leite / nola zeugan geure ahalegina  
Uribarriko lirio eder / Asunzinoeko Birjina.

6) Ondo pagetan dozu, Andrea, / deutsuen debozinoa  
mesede baga itxi bagarik / inoren petizinoa.  
Hagaiti zara elixa honetan / gure Patrona egina  
Uribarriko lirio eder / Asunzinoeko Birjina.

7) Hainbat mirari ikusten dogu / geure begien aurrean  
zeinda uste dogun, Ama maitea / zaukaguzala lurrean.  
Baia bakigu geuk zariana / zeruetako erregina  
Uribarriko lirio eder / Asunzinoeko Birjina.

8) Nor izango da egongo dana / nobena hau akabadurik  
bere pena eta miseriaren / konsueloa bagarik  
izanik bere debotoentzat / hain ongi egila fina  
Uribarriko lirio eder / Asunzinoeko Birjina.

## 09- AGUR SAGAR BELTZARAN (Hitzak eta doinua: X. Amuriza)

1) Gogoan al dun nola  
biok parez pare  
izan ginen urondo  
bereko landare.  
Gero egin haiz zuhaitz  
arrotzeko lore  
badun nik ez dakidan  
hainbeste kolore:  
zenbat aldatu haizen  
sinesteko ere!

2) Alde huen herritik  
igandean goizik  
hemen ez omen baitzen  
betikoa baizik.  
Pantailan omen habil  
orain oso pozik  
behin erdi estalita  
behin erdi biluzik:  
Ez ninan sinetsiko  
neuk ikusi ezik.

3) *Eguzkiz makilatu  
dinate azala  
jantzi eta erantzi  
panpina bezala.  
Hi omen haiz harako  
irla ideala  
zoramen-haitzak eta  
zrion-itzala:  
Ez dun sinesten baina  
ematen dun hala.*

4) Oraindik ezin dinat  
buruan bat egin  
joan hintzen usoa  
"txoriñe" honekin.  
Maite haut esateko  
zenbat hots ezberdin  
Oh ma cherie, Oh mi  
amor!  
I love you my darling:  
Sinetsi dien eta  
hireak egin din.

5) *Amodioa hire  
ager-ostenetan  
teatroa besterik  
ez dun gehienetan.  
Hi azukrontzi jarri  
haute banaketan  
begiak euliak lez  
ibiltzeko bertan:  
Zail dun sinesten baina  
hala dun benetan.*

6) Yo te adoro, Oh my  
love!  
Ene mon amour-a!  
Ez al zain higuigarri  
delako murmurra?  
Betiko tuntun horrek  
behar din gezurra  
edo beste egien  
estalki maltzurra:  
Zulatu didan neukan  
sineste apurra.

7) Loriak udan ihintza...  
lizar gerri lerdan...  
maitaleak horrela  
mintzo gaitun hemen.  
Ez dun hain "guaia" baina  
euskaraz bederen  
hobeto jakiten dun  
egia ote den:  
hik dena sinetsi dun  
ulertu baino lehen.

8) Ez dinat ukatuko  
berezko lilura  
loreak ere joaten  
ditun merkatura.  
Sal-erosian habil  
eskutik eskura  
heuk zenbat balio dun  
ez zaien ardura:  
Sinestea zertan den  
gure neska hura!

9) Halako marka berri  
galanten aukera  
turbo-motorra eta  
bi izter gainera.  
Prezioa jartzen din  
bularren parera  
tristura jaitsi zaidan  
gogo barrenera:  
Ezin dinat sinetsi  
hi haizela bera.

10) *Itxaropena azken  
galera izanik  
hirekin bera ere  
galdua dinat nik.  
Joanak ez din mugarik  
hartara emanik  
batez ere ez badu  
itzultzeko planik:  
Sinesterik horrela  
galduko hintzanik!*

11) Agur, sagar beltzeran  
edo beilegia  
Agur betiko hire  
izar aurpegia.  
Izango haiz ederra  
baita ederregia  
ez, ordea, maitea  
ezin alegia:  
Heuk ez sinetsi baina  
hori dun egia.

## 10- ASTEBURU ALDERA (Doinua: Anje Duhalde. Hitzak: X. Amuriza)

1) Asteburu aldera  
uso giro beti  
uso giro beti  
behin hor jarri natzaio  
luma-jarein bati.  
"Ez al naun ezagutzen?"  
nik galde poliki  
"Ez haut, ba, ezagutzen"  
hark erantzun soilki  
hurrengo zer galdetu  
hitzak berak daki.

2) "Aizan, hi, ez al huke  
ni ezagutu nahi?  
ni ezagutu nahi?"  
Hura miru-begia  
jarri didana, ai!  
Ez dit erantzun baina  
masailean jo bai  
haseratik ezin, ba  
dena gerta zelai  
hemen behar dena da  
ekin eta jarrai.

3) Beraz, banoa berriz  
zoko begirale  
zoko begirale  
"Ez haut, ba, ezagutzen"  
bigarrenak ere.  
"Nahi al naun ezagutu?"  
nik segidan galde  
ez du hitzik atera  
bai muzinka alde  
masaileko triste bat  
ere eman gabe.

4) Hirugarrenak baietz  
-garaia zunan, hi!  
-garaia zunan, hi!  
otarteko bat janez  
ongi dela hori.  
Nik orduan agudo:  
"Aizu, tabernari!  
Atera okelarik  
ederreneko bi"  
haragirik ez dadin  
makalez erori.

5) Gogoz ari da sartzen  
hortzak emanala  
hortzak emanala  
hitzik ezin egina  
gauza naturala.  
Ni ere mauka-mauka  
saiatzen naiz hala  
gose hauxe besterik  
ez banu bezala  
zintzurak ere zerbait  
eraman dezala.

6) Amaitu du jatea  
garbitu koipea  
garbitu koipea  
gero kafea eta  
Winston paketea.  
Zigarro bat erreta  
beste baten kea  
putz eginez esan dit:  
"Adio, maitea!  
Bapo joan zaidak hire  
ezagupidea".

7) "Aizan, hi, nora hora  
txonta alaena?  
txonta alaena?"  
Laster ezkutatu zait  
samaldan barrena.  
Kontua eskatu ta  
ordaindu hurrena  
heuk ere jan duk eta  
ez duk hutsa dena  
oraindik ez duk galdu  
gerta litekena.

8) Hiru eta hiru sei  
hiru bederatz  
hiru bederatz  
gauari aurreratzen  
ezin galerazi.  
Noizbait batek hor dio:  
"Lehenean al haiz hi?"  
Harritzen naiz ez dela  
berriz hegan hasi  
"Otarteko bero bat  
nahi al dun lehenbizi?".

9) Ez omen du goserik  
eskertzeko denez  
eskertzeko denez  
zurito bat hartzen du  
erdi gizalegez.  
Hiztunegia ere  
nola ez den berez  
haize guztiak alde  
al dauzkat azkenez?  
Pixka batean jaitsi  
musika mesedez!

10) Haizeak eta urak  
batera jotzean  
batera jotzean  
ertzak azkar gelditu  
ohi dira atzean.  
Denbora joan zaigu  
tximist-orratzean  
gauerdian bildu ta  
jarein goizaldean  
elkar ezagutzeko  
tarterik gabean.

11) Hainbeste zorte izan  
ez duen hamaika  
ez duen hamaika  
kalez kale badabil  
oraindik jajaika.  
Guk otarteko bana  
eskatu ta aupa!  
nik berriro okela  
kideak lukainka  
jana ezagupide  
emankorra baita.

12) Agur, Ilargi eta  
egun on, Eguzki!  
Egun on, Eguzki!  
Pekatu baldin bazen  
ez zen hain garesti.  
Konfesatu beharrik  
ere ez da, noski  
aurretik izan baitut  
penitentzi aski  
zeruan sartuko naiz  
hartzeko ta guzti.

**11- MATXALEN KARDU** (Doinua herrikoia. Bertsoak: Kepa Enbeita, “Urretxindorra. 1878-1942)

Matxalen Karduk asto ganean  
Bilbora bostehun arrautze  
daroazela, Erletxetako  
mutil koskorak dirautse:  
-Matxalen Kardu, Matxalen Kardu,  
zer daroazu astoan ?  
-Zera jaroat... asto-korotzak  
zuek joteko lepoan.

"Añaniñoen atso sorgina!"  
esanda, danak harrike,  
hartzen deutsoe asto zahar hori  
aurretik arin-arinke.

Halako baten zapalduten dau  
kulebioen etxie.  
Honeek hasarrez lau aldeetatik  
astoari heltzen deutsie.

Ene mutilak! Zer zuan hango  
putz, arrantza ta dantzie!  
Agur, Matxalen, zure astoa ta  
arrautzak Bilbon saltzie!

**12- ARRAIN SALTZAILIA** (Bertsoak: De La Fuente anaiak, “Durangoko plateruak”.  
Musika: Oskorri)

Ni naz emakume bat arrain-saltzailia  
marinelak itsasotik dakarren guztia  
nahi besigu, nahi lebatz, atun, sardinia  
nahi txirla, nahi mielgia, baita angilia

Arre, potxo. arre, arre, asto, arre!  
Arre, maletxoria! Arre, bada, arre!  
Ixo, ixo, ixo! Hortik zek harua?  
Beti baina okerretik, asto berenua!

Goizian goiz hasita izotz handi baten  
Oinak bilosik nago arraina garbitzen.  
Zesto artian gero ondo plegatzia  
Astuan kargetako daukat nik penia.

Jagi zaite, jentia, ia ordua dozu  
Zortzi legua eginda, atetan naukazu  
Hor dozu lebatz fresko, bart urtenikua.  
Hemen nago hotzak hilik. Bai ikustekua!

### 13- MATXANGO (Lekeition, tximinoa)

(Antonio Aboitiz. 1751-1824. Lekeitioko abade bat. Musika: Oskorri)

Nik dot, alkate jauna,  
Matxango izena.  
Matxango neure aita  
eta amarena.  
Gu gara Marakaibon  
guztizko nobliak  
kakao eta azukre  
askoren jaubiak.

Jauna, igazko urtian  
neure jardinian  
pasietan nenbilen  
maiatzeko hilian.  
Hara etorri ziran  
hemengo gizon bi  
ostuta eruateko  
ni Marakaiboti.

“Gure errege jaunak  
zure fortunatzat  
zu eskojidu zaitu  
bere esposatzat.  
Ontzi handi eder bat  
hara han erriberan  
guk zeu eruateko  
enbarkauta bertan”.

Heldu ginian, bada  
gu Lekeitiora  
hiru urte osuak  
laster-laster dira.  
Hemen saldu ninduen  
betiko esklaba  
hain zuzen, abade bat  
dot neure ugazaba.

Horra, alkate jauna  
nire tragedia  
orain hemen entzun dau  
dan legez egia.  
Plater bat ez dot hausi  
sekula etxian.  
zegaitik nauke, bada  
lotuta kateian?

Orain, alkate jauna  
entzunik egia  
emon begi nire alde  
berorrek epaia.  
Eta kastigau begiz  
eurak kastuakaz  
baita legeetako  
pena guztiakaz.

### 14- KAUSINO (Bertsoak: De La Fuente anaiak, “Durangoko plateruak”). Musika: Oskorri)

Sekreto handia da ta  
marabillosua  
Kausinuen liburuan  
agerturikua.

*Errepika*

Ez diamante, ez perla  
ez urregoririk  
alegrantzia baino  
ez dago hoberik.

Eskolia ederra  
daukagu munduan  
seinzainak alegria  
haurrari kantetan.

*errepika*

Kausinok esaten dau  
lelengo tomuan  
alegria dala onena  
biziteko munduan

## **15- MENDI ALTUAN** (Musika: Ruper Ordorika. Bertsoak herrikoiak)

Mendi altuan aurten ez ei da  
erromerurik loratu.  
Nik iminita igartu izan zan  
zuk iminita berdatu.  
Ama gure alde jarri badaigu  
alkarregaz behar dogu.

Larrosea ta krabelinea  
diferenteak kolorez  
aitak alaba agindu arren  
amak egin lei emon ez.  
Biak kontentu izan ezkerro  
bitartekorik behar ez.

Larrosatxoak bost orri daukaz  
krabelineak hamabi.  
Nire umea gura dabenak  
eskatu bere amari,  
Ama zuhur daukan neskatilea  
bizi lei ardura barik.

Goiko mendian edurra dago  
errekaldean izotza.  
Neu zuregandik hurre nago ta  
pozik dadukat biotza.  
Zure ondoan udako bero  
eingo jat neguko hotza.

## **16- ITSASOTIKAN GATOZENIAN** (Hitzak eta doinua, herrikoiak)

Itsasotikan gatozenian  
arrainik barik etxera  
andra zantarrak bidaltzen gaitu  
afaldu barik ogera.  
Ohian sartu ta popia emon  
hau da betiko kontua!  
Holako andrakin ezkontzen dana  
ez da makala tontua.

## 17- EGIJE DA. BERMIOKO PORTUAN (Hitzak eta doinua, herrikoiak)

Egije da, egije da  
neuk ikusije dalako.  
Egia da, egia da  
porque lo he visto yo.

Hiru areoplano pasata  
bat itsasora jausi.  
Ekarri, Sebastianek ekarri  
Sebastianek ekarri  
Sebastianek fondua emonda itxi.

Ondarru ta Debatik  
atara da jentia  
pasiatzera, goazen Mutriku aldera,  
goazen Mutriku aldera,  
han dauan aeroplanua ikustera.

Juana Pipasen etxian  
ein dabe afaria  
aingiria, bete kazuelaria  
bete kazuelaria  
Kalamas, zorrotz ibili kutxaria.

Bermioko portuan  
goizeko ordu bijetan  
ez da entzuten besterik, ez da entzuten besterik  
ez da entzuten besterik:  
Txo! Atrakaixu batela.

Agostuen hamabijen  
Franco Bermiora etorri.  
Ekarri katxalotia ekarri, katxalotia ekarri  
katxalotia puf!  
Artzan enkalleta itzi.

El aviador de Kakapur  
también quería volar.  
Eztso itzi trinkadoriak, eztso itzi, trinkadoriak eztso itzi  
trinkadoriak  
barrabaskeije ein barik.



**18- GREZIAKO ITSASONTZIA** (Hitzak eta Musika: Lluís Llach. Euskaratzailea: Xabier Lete)

Itsaso gaindik ikusten baduzu  
gure gogoa daraman ontzia  
etzazu pentsa galduta doanik  
argitzen baitu goizeko eguzkia.

Hainbeste amets negar ta desio  
ez du ekaitzak ondora botako  
salbatuko da goizeko ontzia  
kaiaren bila hegaka joaiteko.

Arraun berriek eramango dute  
bide zaharretik askatasunera  
oihal zuriak haizea dirudi  
gure arnasa hiltzen den batera.

Ez du ekaitzak ondora botako  
salbatuko da goizeko ontzia.

**19- SALAMANKARA, Nafarroako bertsoia** (Bertso anonimoak eta doinu herrikoia)

Gazte gaztetik aitak eta amak  
fraile ninduten nonbratu  
bai eta ere estudiora  
Salamankara bidaldu.  
Salamankara nindoalarik  
bidean nuen pentsatu  
estudiante tunante baino  
hobe nuela ezkondu.

Ostatu xume polit batean  
gosez gelditu bainintzen  
neska xarmant bat ari zitzaidan  
mahainean zerbitzatzen.  
Bergia kartsu, ezpaina lore,  
enekin aise mintzatzen  
aingeru hori ordu berean  
ene bihotz barnean zen.

Hitz erdi batez maite nuela  
erran nion belarrira  
baina, gaixoa, herabetua  
ihes joan zen kanpora.  
Ez ahal nauzu, izar ederra,  
kondenatzen infernura!  
Ez da sekulan ene gogotik  
histuko zure itxura.

Aita Jainkoak egin banindu  
zeruetako giltzari  
orduantxe bai jakinen nuen  
atea nori ireki.  
Lehenengo aitari, gero amari,  
gero anai-arrebari,  
ta azken orduan isil-isilik  
nere maite politari.

## 20- ZAZPIAK OIHAL BATETIK (Hitzak: Xalbardin. Musika: Fernando Unsain/Eltzegor)

Mundu guztiak aditutzen du euskaldunaren negarra  
alde batera nahiago nuke ez banintz hemengotarra.  
Enpeinatzea ez bada libre alperrik degu indarra  
hau da txoria gari tartean goseak egon beharra.

Antzerki hontan lau pertsonaia ta jokalaria bakarra  
arbolak berak erakusten du hostoa eta adarra.  
Enpeinatzea ez bada libre.....

Sutan pizturik darrai oraindik sugai berriz lehengo gerra  
oharkabea ez zen mintzatu Txirrita poeta zaharra.  
Enpeinatzea ez bada libre...

Zazpi ahizparen gai den oihala ebakirikan erditik  
alde batera hiru soineko utzirikan lau bestetik.  
Guraiziakin bereizi arren bakoitza bere aldetik  
ezagutzen da jantzi direla zazpiak oihal batetik

Oihal bera da gure jantzia sortu gintuzten unetik  
ez du munduak kemenik sortu kentzeko gure soinetik.  
Guraiziakin bereizi arren.....

## 21- IDUZKI DENIAN (Hitzak anonimoak. Doinua herrikoia)

Iduzki denean, zoin den eder itzala!  
Maitia, mintzo zira, plazer duzun bezala.  
Egiten duzula mila disimula, inorant zirela  
erraiten duzula bertzetaik naizela  
faltsuki mintzo zira.

Zazpi urtez beti jarraiki zait ondotik,  
Erraiten zautala: ez dut bertze maiterik.  
Hitzer fidaturik  
Nago tronpaturik  
Gaixoa trixterik  
Ez dut egiten lorik  
Ez jan-edan onik  
Maitia, zuregatik.

Oi! ene maitia, nik ere zuregatik  
Pasatzen dizut nik zonbeit sabeleko min.  
Ezkonduz zurekin  
Samur ait'amekin  
Behar nindeite jin  
Ez dakit zer egin  
Ez eta nola jin  
Nik neure etxekoekin.

Oi! ene maitia, nun duz'izpirituia?  
Fediaren jabe aita deraukazuia?  
Atxikazu fedia  
Maita bertutia  
Libra kontzientzia  
Munduko bizia  
Labur da, maitia.  
Ez zaitela kanbia!

## 22- BIZI NIZ MUNDIAN

Bizi niz mündian  
Aspaldi handian  
Beti tristezian  
Pena bihotzian  
Amodiotan nintzan  
Izar batekilan  
Hura ezin ikus  
Plazer düdanian  
ez beitüt etxian  
Ez eta herrian.

Aira baninandi  
Ainhera bezala  
Ardüra joan naite  
Maitiarengana  
Ene pena-doloren  
Hari erraitera  
Bai eta xangrinen  
Hari salatzer  
Aitaren ixilik  
Solas egitera.

Izan niz Barkoxen  
Kusi baten etxen  
Ahüntz jaki jaten  
Segür ona beitzen  
Kostaletak errerik  
Biriak egosirik  
Ogia muflerik  
Ardua gozorik  
Han etzen eskasik  
Maitia zü baizik.

## 23.- MAITE ZAITUT (Hitzak eta doinua: Pirritx eta Porrotx)

Koloretako ametsak  
esna nagoenean  
eta ezin loak hartu  
gaua iristen denean.  
Saltoka hasita hegan  
egiteko gogoa,  
nire bihotza taupaka  
aire ertzera doa.  
Elkarrekin hankaz gora  
buruz behera jartzean,  
tunelean sartu eta  
irrintzika hastean,  
bitxiloreekin pultsera  
egin dizudanean,  
begietara begira  
hauxe nahi dizut esan:

Maite zaitut,  
maite-maite zaitut;  
pila, pila, pila patata tortilla!  
Maite zaitut. Maite-maite zaitut,  
ilargiraino eta buelta maite zaitut

Begietako distira,  
irribarrea ahoan,  
ezin ditut ezkutatu  
zu ikusterakoan;  
hanka eta eskuetan,  
gorputzean dardara;  
nire bihotza taupaka  
aire ertzera doa.  
Elkarrekin ortzadarra  
margotu dugunean,  
ispiluan nire izena  
idatzi duzunean,  
irratia piztu eta  
doinu hau entzutean,  
begietara begira  
hauxe nahi dizut esan:

**24- ZURE BEGIEK** (Musika: Mikel Laboa. Hitzak: Daniel Landart)

Zure begiek, ene maitia, badute biek dirdira ezta  
Zeruko lore miresgarriak, izarren pare zoragarriak.  
Gazte-gaztia zira oraino, egun guztian nago zuri so  
Zure begiek erotzen naute, eta guztiek nahi luzkete.

Gaua delarik mundurat jausten, Jauna zerutik da urrikaltzen  
Zure begien goxoño hori egon dadien eder ta garbi  
Ene nahia, zinez haundia, zu izaitia neure andria.

Zure begiek, ene maitia, badute biek dirdira ezta  
Zeruko lore miresgarriak, izarren pare zoragarriak.  
Gazte-gaztia zira oraino, egun guztian nago zuri so  
Ene nahia, zinez haundia, zu izaitia neure andria.

**25- AZKEN DANTZA HAU** (Musika eta hitzak: Manex Pagola)

Uuuuu....

Azken dantza hau  
maitia, zurekin  
nahi zinduzket  
ereman nerekin.  
Baina gaurko xedia  
ezin daike betia  
badakit nik ere  
bihar dela joaitia

Bego pena hau  
itzuliren naiz  
bai berriz Euskal Herrira.  
Bego urte hau  
etorriko naiz  
betikoz zure ondora.

Uuuuu....

Azken dantza hau  
ez da sekulako.  
zin egin dut  
zin egin betiko  
hemen gure lurrean  
Bizi behar dudala.  
Hori ez bada  
hilotz gera nadila.

## 26- ARBOLA GAINEAN (Hitzak: Beñat Sarasola. Musika: Pier Paul Berzaitz)

Arbola gainian xoria da kantatzen  
kantatzen da eta bazterrak inarrausten  
inarrausi eta hostua da erortzen  
euskal bihotza da bilaiz egoiten  
Bilaizi ondoan han dira errabian  
xiloka beltzian handik elki nahian  
handik elki eta kantatzerat abian  
lagün zombait bidian ikusiko agian

la, lara lara-lala-lala...

Goiz argi eder bat beti jeikitzen nunbait  
nunbait jeiki eta zorionean zombait  
bizi hobeago denek lukete gogo  
bainan bakarrik ezin egin asmo.  
Haur baten sortzeko sofritze beharrezko  
bizi hobetzeko legeen bihurtzeko  
nor da abiatzen lagün zombaiten biltzen  
herriaren salbatzen herioari kentzen.

laa, lala-lala-lala...

Gaur Euskal Herrian zühaina da  
landatzen  
landatzen da eta gero frütü ekartzen  
frütü ekar eta aizua da kexatzen  
iraultzalaria madarikatzen  
jar giten ilduan, igeri izerdian  
izerdian eta lepo-zainak hegian  
besoez ta botzez, hortzez eta haginez  
lagün bat zorionez ikusiko dögünez

laa, lala-lala-lala.

## 27- PRIMA EJERRA (Hitzak eta doinua, herrikoiak)

Prima eijerra  
zütan fidatürük  
anitx bagira  
oro trunpatürük!  
Enia zirenez erradazüt bai al'ez  
bestela  
banua  
desertiala, nigarrez urtzera.

Desertiala  
juan nahi bazira  
arren zuaza  
oi, bena berhala!  
Etzitiala jin harzara nigana  
bestela  
gogua  
dolütüren zaizü, amoros gaixua.

Nitan etsenplü  
nahi dianak hartü  
ene malürrek  
parerik ezpeitü.  
Xarmagarri bat nik beinian maitatü  
fidatü  
tronpatü!  
Seküla jagoiti ikusi ezpanü!

Mintzo zirade  
arrazu gabetarik  
ez düdala nik  
züre amodiorik.  
Zü beno lehenik banian besterik  
maiterik  
fidelik  
horrez eztereizüt egiten ogenik

## **28- GOIZIAN ARGI HASTIAN** (Musika eta hitzak: Etxahun Iruri)

Goizian argi hastian, ene leiho egian  
Txori bat pausatzen da eta goratik hasten kantan.  
Txori eijerra, hain alegera, entzüten haidanian  
Ene bihotzeko trixtüra laster duak aidian.

Ene txoririk maitena, zertan jin hiz nigana?  
Iratzarrazi, nialarik ametsik eijerrena.  
Jinik hain goizik, uste hiena baniala hanitx pena?  
Ez, ez, abil konsolatzera malerusago dena.

## **29- BARATZE BAT** (Musika eta hitzak: Pier Paul Berzaitz)

Hau da egün ederra  
mila xoriek kanta  
ziauri, ene erregina  
besuak zuri dititzüt para.

Baratze bat nahi deizüt egin  
Amets segretüenekilan  
Liliak egün jauntzi ederrenetan  
Mila kolorez dantzan bihotzetan.

Gai beltz ta sakonetik  
elkitzen nüzü hoztürik  
Bihotza hain tristerik  
Zütaz üsü berantetsitürük.

Baratze bat...

Karrosa bat hor dügü  
Kanpuan güre aidürü  
Ez gal haboro denbora  
Hiskor beitago amodiua

Baratze bat...

Maitarzün berriari  
ilargiak dü argi  
emanen deikü aski  
gük alkar maita dezagün beti.

### 30- MARTXA BATEN LEHEN NOTAK (Musika: M. Laboa. Hitzak: Bertolt Brecht)

Eguzkiak urtzen du goian  
gailurretako elurra  
uharka da jausten ibarrera  
geldigaitza den oldarra.

Batek gose diraueno  
ez gara gu asetuko  
bat inon loturik deino  
ez gara libre izango.

Gure baitan datza eguzkia  
iluna eta izotza  
urratu dezakeen argia  
urtuko duen bihotza.

Bakoitzak urraturik berea  
denon artean geurea  
etengabe gabiltz zabaltzen  
gizatasunari bidea.

Bihotza bezain bero zabalik  
besoak eta eskuak  
gorririk ikus dezagun egia  
argiz beterik burua.

Inor ez inon menpekorikan  
norbere buruan jabe  
herri guztioak bat eginikan  
ez gabiltz gerorik gabe.

### 31- AITORREN HIZKUNTZA ZAHARRA (Hitzak anonimoak. Doinua herrikoia)

Aitorren hizkuntza zaharra  
nahi degu zabaldu  
munduaren aurrean  
gizonki azaldu,  
baldin gure zainetan  
odolik badegu  
euskaldunak euskaraz  
hitz egin behar degu.

Zein hizkuntza ederra  
euskera guria  
inun ez det aurkitzen  
beste bat hobia  
usai goxodun hizkuntz  
txukun ta argia,  
biraorikan ez duan  
hizketa garbia

Gora euskara maitea  
zoragarriena  
euskalduen artean  
maitagarriena.  
Munduan sortu zanik  
hikuntzik zaharrena,  
gora ta gora euskaldunak  
eta gure euskara.

### 32- ALFERRAREN ASTEA (Hitzak eta musika: Imanol Urbieta /Xirula-Mirula)

Astelehena  
jai ondoren alperra  
lanik ez egiteko  
ez goaz lanera  
ez goaz lanera (lau)

Osteguna  
amonaren eguna  
hori ospatutzeko  
ez goaz lanera  
ez goaz lanera (lau)

Igandea  
lantegiak itxita  
lana egin nahi baina  
ezin joan lanera  
ez goaz lanera (lau)

Asteartea  
euria goitik behera  
bustiko egingo gara  
ta ez goaz lanera,  
ez goaz lanera (lau)

Ostirala  
haginetako mina  
aspirina hartuta  
bagoaz ohera  
ez goaz lanera (lau)

Asteazkena  
osaba ezkontzen da  
berak jai hartzen badu  
ez goaz lanera  
ez goaz lanera (lau)

Larunbata  
egun erdiko lana  
egun erdiagatik  
ez goaz lanera  
ez goaz lanera (lau)

### 33- BIZKAIA MAITE (Musika: B. Lertxundi. Hitzak: Aingeru Irigarai)

Bizkaia maite  
atzo goizean ikusi zindudan  
soineko xuriz jantzia  
buruan orlegi, bihotzean sua  
nere gogoaren ertzatik pasatzen.  
Zure usain gozoa, lana  
amodioa, itsasoa  
nere baitan sartzen.  
Atzo goizean entzun nuen  
zure berbaren oihartzuna  
zure kantaren fereka  
bihotzean kilika  
eta ohiartzunaren haunditasunean  
murgilduz joan nintzen  
jauzika, hegaka.

Bart arratsean  
arbasoen baratzaren ondoan  
bertsotan eta dantzan  
lotu zinen alai, piper eta gatza  
sabel emankor.

Bizkaia maite  
atzo goizean ikusi zindudan  
soineko xuriz jantzia  
buruan orlegi, bihotzean sua.

Olerkari  
penatuaren gozo eta mina  
amodio eta kanta  
zure berba legun  
zure gatzaren bizia,  
zure burdinaren gorria dira gaur  
neretzat aterbe.

Bizkaia maite  
atzo goizean ikusi zindudan  
soineko xuriz jantzia  
buruan orlegi, bihotzean sua  
lirain, sendo, eder



### 34- KONTRAPAS (Hitzak: Beñat Etxepare. Musika: Xabier Lete)

Garaziko herria  
benedika dadila  
euskarari eman dio  
behar duien tornua.

Oraidano egon bahiz  
inprimitu bagerik  
hi engoitik ebiliren  
mundu guzietarik.

Euskara, euskara,  
ialgi hadi kanpora.

Euskara, euskara,  
habil mundu guzira.

Bertze jendek uste zuten  
ezin eskriba zaiteien  
orai dute forogatu  
enganatu zirela.

Ezein ere lengoajerik  
ez frantsesa ez bertzerik  
orai ez da erideiten  
euskararen parerik.

Euskara, euskara,  
ialgi hadi plazara.

Euskara jalgi hadi dantzara.  
Euskara jalgi hadi kanpora.  
Euskara jalgi hadi plazara.  
Euskara jalgi hadi mundura.  
Euskara habil mundu guztira

Bertzeak oro izan dira  
Bere goihen gradora  
Orai hura iganen da  
Bertze ororen gainera.

Euskara, euskara,  
ialgi hadi plazara.

### 35- KAIA BARRENIAN. IXIL-IXILIK (Doinua eta hitzak, anonimoak)

Ixil-ixilik dago kaia barrenian  
untzi xuri polit bat uraren gainian. (bis)

Goizeko ordu bietan esnatutzen gira  
arrantzaliarekin juateko urrutira.

Pasatzen naizenian zure leihopetik  
negarrak irteten dit begi bietatik (bis)

Zergaitik (5 aldiz) negar egin?  
Zeruan izarrak dagoz itsaso aldetik. (bis)

### 36- PASAIAKO HERRITIK (Doinu herrikoa. Bertsoak: Xenpelar)

Pasaiako herritik dator notizia  
zezen bat izan dala jenioz bizia.  
Kantatutzero nua bistan ikusia  
alegratzeko triste dagoen guzia.

Santiago eguna Pasaian sinale  
ailegatu eztanak egin beza galde.  
Hasieran jendia zezenaren alde  
azkenian etziran arrimatu zale.

Torillotik atera zuten lehendabizi  
behi zahar bat gidari bandera ta guzi.  
Harrapatzen zuena purrukatzen hasi  
azkenian plazatik kanpora ihesi.

Hiru komertziante plazatik kanpuan  
forforo ta barkillo labaina tratuan.  
Pareta egon arren hamar oin altuan  
panparroi jua ziran putzura saltuan.

Hoiek horrela eta gehiago ere bai  
lurrian ziraldoka egin zuten lasai.  
Ezkonberriak eta zenbait dama galai  
zezenaren mendian etzuten jarri nahi.

Plazatik itsasora sartu zan igeri  
adarrak besterikan etzuen ageri.  
Bakerua begira bere zezenari  
eserita jan ditu hiru libra ogi.

### 37- PELLO JOXEPE (Doinu eta bertso anonimoak)

Pello Josepe tabernan dala  
haurra jaio da Larraulen (Bis)  
Etxera joan da esan omen du:  
-Ez da neria izanen  
beraren amak topa dezala  
haur horrek aita zein duen.

Hau pena eta pesalunbria!  
Senarrak haurra ukatu (Bis)  
Pello Josepe, bihotz neria  
haur horrek aita zu zaitu  
haur horrentzako beste jaberik  
ezin nezake topatu.

Zure semia besuan daukat  
senarra aldamenian (Bis)  
Orain denborik eztaukat eta  
zuazkit ordu onian  
neronek abisatuko zaitut  
garaia datorrenian.

Fortunosua nintzala baina  
ni naiz fortuna gabia (Bis)  
Abade batek eraman dizkit  
umia eta andria:  
haurra beria bazuen ere  
andria nuen neria.

Patzientzia hartu bihar da  
munduan, Pello Josepe (Bis)  
Andria ere zuria izanda  
haurra bestena diote  
gizonen faltan igarotzen da  
basoan zenbait larrarte

### **38- SAN SIMON** (Hitzak herrikoiak. Doinua: Xabier Lete)

San Simon eta San Juda  
joan zen uda, eta negua heldu da (bis)  
Ez baletor hobe, bizi gara pobre  
eremu latz honetan  
ez gara hain onak benetan

Ez dugu zaldirik, ez gara zaldunak  
ez dugu abererik, ez gara aberatsak  
euskara guk dugu, gu gara euskaldunak  
euskara guk dugu, gu gara euskaldunak.

### **39- LEKEITIOKO KALIAN** (Doinua eta hitzak, herrikoiak)

Lekeitioko kalia  
andrak errondan gabian (barriro)  
ez dabe izten lorik egiten  
bakotxa bere tokian  
andrak errondan gabian

Treotzaria emon, Mertzedes, mesedez,  
Treotzaria emon, Mertzedes, mesedez,  
Treotzaria emon, Mertzedes, mesedez,  
baina ardurarikan ez.

Juana Parlen atzetik zabiltzaz, Gregorio,  
Juana Parlen atzetik zabiltzaz, Gregorio,  
Juana Parlen atzetik zabiltzaz, Gregorio,  
baina berak ez zaitu nahi.

Anjeltxu maitiago dabela diñue  
Anjeltxu maitiago dabela diñue  
Anjeltxu maitiago dabela diñue  
baina amak ez dautso izten.

Kalifornian dauko barrija, barrija,  
Kalifornian dauko barrija, barrija,  
Kalifornian dauko barrija, barrija,  
Lorentzo begi zurija.

**40- ZENBAIT BERTSO XELEBRE** (Hitzak Bernardo Atxaga. Doinua: Ruper Ordorika)

Batzuetan jartzen naiz  
etxetik begira  
begiak jausten zaizkit  
leihotik behera  
lurrean salto eginez  
kanikak balira  
gaua etorri arte  
dibertitzen dira.

Lagunekin paratu  
txokolate jatea  
saku-karrerak eta  
bidaia handiak  
ezagutu nahi ditut  
enpatxu eztiak  
Konstantinopla eta  
Parisko zubiak.

Biziko gara horrela  
hiru ehun bat urtez  
banku guztietako  
jabetzaren kaltez  
sufrimendua eta  
negarraren orde  
farra eta farrandaz  
historia betez.

Ikusmira galduta  
asper naizenean  
gogoia ipintzen dut  
etorkizunean  
zer egin behar dudan  
euskaldun artean  
suiizidatzen ez banaiz  
datorren urtean.

Apaizeri sotanak  
dizkiet kenduko  
itsasontzi piraten  
banderak egiteko  
tiobibo batetan  
denok gara igoko  
zintzoak garelako  
ez dugu ordainduko.

Ta horrelakorik inoiz  
gerta ez baledi  
izan gintezke arrano  
batzuentzat txori  
txit ondo hitz eginez  
eskuetan geldi  
borreroak baditu  
milaka aurpegi.

Estraineko gauza  
zeharo alpertu  
jatearekin soilik  
nor da gaur kontentu?  
Asmatu behar ditut  
makina bat santu  
egutegia festaz  
erabat gorritu.

Musika joko dugu  
alde guztietan  
batek bonboan eta  
besteak tronpetan.  
Biluzirik bainatu  
ilargi argitan  
maitia bilatuko  
dugu ur azpitan.

**41- OIHANIAN** (Hitzak eta doinua: Etxahun Iruri)

Oihanian zuiñen eijer  
Txorriño bat khantari  
Eskualdün arbolari  
Zazpi probintzier!  
Amodio dio gazter  
Eskuarari bethi esker  
Jarraiki aiten ürhatser  
Ez sekülan bazter  
Ez deia xarmagarri  
Nuri ez dü placer  
Txori bat khantan ari  
Eskualdün aurrider?

Oi txoria! Hanitxetan  
Zurekilan batian  
Bozkarioz kantatzia  
Nian desiretan.  
Sarthü gira plazeretan  
Egün plaza eder huntan  
Nahiz bozkario ezari  
Eskual bihotzetan.  
Hots, anaie maitiak,  
Bandera eskietan  
Eskualdünak beikira  
Nausi güzietan

